

## Simón Bolívar jaio zela 200 urte

Deia, [1983-04-08].

*Simón Bolívar*-en aditzera ba dugu euskaldun gehienok.

Ezer gutxi gehiago, ordea.

Ez da gure eskola garaieko pertsonaia ospatsuetakorik izan; Espainiako Historia ofizialak gorde die Ameriketara zuten Kolonia handi hari lehenengo zatiak borrokatu eta gerra luze baten ondorioz kendu zizkioten gizonei halako gaitzondoa.

Gero, eta oso berandu, etorri ziren ezinbesteko ezagutzak.

Gaur, baita losintxak ere.

Garailearen seinaleak aldatzen ditu moral-politikoa eta justizia.

*Simón Bolívar* gure jatorriko denez, jakin behar genituzke oinarritzko diren argibide batzu.

Caracas-en jaio zen, 1783go uztaileak 24.

Amerikatu zen lehen *Simón Bolívar*, bizkaitarra zen, *Bolibar* izena daraman Zenarrutzako auzategi nagusian jaioa; ez zen zuzenki Venezuelara joaz, Santo Domingoko irlara baizik, 1559an; 30 urte geroago (1589) iragan zen Caracas-era, hiriburu honetako *Contador General* bezala; bereizgarri gisa, lehenengo honi: "Zaharra" deitzen diote. 2. Alderantziz, honen semea, bigarren *Simón Bolívar*, "Gaztea" bezala ezagutzen da, eta baita "Amerikanoa" goitzenarekin ere, hau baita Ameriketara jaio zen lehenengo; Hacienda San Mateo-ko "encomendero", edo kargudun zela, zituen esklabuak libratu eta apez egin zen. 3-4. Hirugarrenak *Antonio* izena zuen, eta laugarrenak, *Luis*: biak lurlangintzaz eta ganadu hazkuntzaz arduratu ziren. 5. Bostgarrena. *Juan de Bolívar* izan zen, "Venezuela" probintziako Gobernadore orde izatera iritxi zen. 6. Seigarrena da *Askatzailearen aita*: Juan Vicente de Bolívar y *Ponte*, merkatalgo eta industri gizona Caracas-en; ama, berriz, María de la *Concepción Palacios y Blanco*; lau seme-alabetatik txikiena, azkenekoa, izan zen *Simón Bolívar*.

Hoiek dira, belaunaldiz-belaunaldi, *Simón Bolívar*, *Askatzailearen*, arbasoak.

*Bolívar*-ek Europa egin zituen bi bidaietatik lehenengoan (1799-1802) bi egonaldi egin zituen *Bilbon*; 5.000 biztanleko Bilbo hartan egingo zituen ezaguerak. Sociedad Bascongada de Amigos del País-eko gizon batzu hoiaren artean, eta enziklopedista hoiaren liburutegietan irakurri ere egingo zituen garai hartan isilpeko ziren batzu.

Hontaz ezer gutxi badakigu ere, gazte argi hark ezagutu zituen gure herriko kezkek eta erakunde politikoak.

Madrilen ezkontzen da *María Teresa del Toro y Alaiza*-rekin (1802), eta bereala itzultzen da jaioterrira. Zoritxarrez, zortzi hilabete barru alarguntzen da, eta ez da gehiago ezkonduko. *Askatzaile* handi guztiak bezala. Aberriari eskeintzen dio bizia. Hau laburra da: hogeituroko (1810-1830) borroka latz-gaiztoaren sari: Venezuela, Colombia, Bolivia, Ecuador, Perú eta Panamá askatzen ditu. Askatzeko lanetan eroan behar izan

zituen zamak makurtzen dute beti zutik bizi izan zen gizon handi hau, eta 47 urtekin ez da beste ezertarako gauza.

Caracas-en jaio zena, Colombian hil zen, dezepzioak gaisotuta.

Beste gizon handi bezala, *Simón Bolívar* ere esker gaiztoko, handinahi eta lukurrero askoren biktima izan zen; bere bizia eta ondasun guztiak aberriari eskeini eta gero, minduta, etzita, Colombiara erretiratzen da. Eta gauzak halakoxeak dira batzutan, Santa Martan espainol batek, Cádiz-en jaio zen Joaquín Hier jaunak, eskeintzen dio berea zuen "San Pedro Alejandrino" hazienda, azkeneko egunak pakean igaro ditzan.

Hain beharrezko zuen babesia.

1830go abenduaren lehenengoan heldu zen bertara, eta 17an hil zen.

Pake laburra izan zuen, beraz.

Caracas-erako azken bidaia ere ez zioten berehalakoan xedatu: politikakeriak medio, 1842 arte ez zuten bere jaioterrira eroaterik izan.

Hamabi urte egon zen Bolívar-en gorpua etxeratu zain.

Hil baino zazpi egun lehenago (1830.12.10) herritarrei zuzendu zien mezuaren amaiera adierazgarria da:

*"Nere azken nahia Aberriaren zoriarena da; nere heriotza, zatiketa amaitu eta Batasuna indartzeko lagungarri bada, pakean jaitsiko naiz hilobira".*